

HAUR KANTARI JAIALDIAK-2009

Euskal Kantuzaleen Elkarteak 2009ko HAUR KANTARI JAIALDIA aurkeztu nahi dizue. Beste behin ere zuengana jotzen dugu, Haur Kantari Jaialdian gurekin kantuarekin gozatzeko prest egongo zaretelakoan.

Hiru orriko honen bidez Jaialdiaren helburuak, ezaugarriak, eta parte hartzeko baldintzen gaineko zenbait ohar bidaltzen dizkizuegu, 2009ko Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdiaren berri izan dezazuen.

Esan behar dugu, Haur Kantari Jaialdia lehengo Haur Kantari Txapelketatik datorrela, eta Gipuzkoan, duela bi urte, Jaialdi izena eman geniola Txapelketaren tentsio eta urduritasuna ekiditeko.

GIPUZKOAKO HAUR KANTARI JAIALDIA bi saiotan gauzatuko da, eta honako hauek dira leku eta datak:

1. saioa: VILLABONAN, martxoaren 21ean
2. saioa: AZKOITIAN, apirilaren 4ean

IZENA EMATEKO azken eguna, martxoaren 16a.

Animatu parte hartzera!



Martín Ugalde Kultur Parkea
Gudarien Etorbidea z/g
20140 ANDOAIN
Tel/faxa: 943-593302
E-posta: posta@kantuzale.net

I. Helburuak:

- Gipuzkoako haurrek kantuarekin gozatzea.
- Euskal kantuaren arloan dugun errepertorio aberatsa gure haurrek ere ikastea.
- Haurren euskararekiko eta kantuarekiko zaletasuna piztea.
- Euskal Kantua heziketarako tresna moduan erabiltzea.
- Musika gela barruan ikasitakoa eszenatokiko praktikarekin osatzea.

II. Nork eta nola har dezake parte?

- 6-15 urte bitarteko haur eta gaztetxoek.
- Euskaraz abestu beharko dute.
- Laguntza instrumentalari dagokionez, librea da, bai pertsona kopurua (adinak ez du axola) baita haien musika tresna ere.
- “A capella” ere abestu ahalko da, laguntza instrumentalik gabe.

III. Sailak

- Hiru sailetan har daiteke parte:
 - Banaka.
 - Binaka.
 - Taldeka (hiru kantaritik 15era).
- Kantua honakoa izan daiteke:
 - Kantu ezaguna (zaharra nahiz berria)
 - Kantu berria edo sortutakoa.
- Argitasun batzuk:
 - Koruak talde bezala hartuko dira, baina zuzendaririk gabe, eta gehienez 15 lagunekoa izango dira.

IV. Sariak edo oroigarriak

- Parte hartzen duten talde guztiek, hau da, bakarlari, bikote eta taldeek, izango dute oroigarria, baina saio hauetan ez da irabazle ezta galtzaile nabarmenik izango.
- Haurrek saio bakarrean hartuko dute parte, eta ez da Gipuzkoako Finalik izango.

PARTAIDEEN FITXA TEKNIKOA

IZEN-ABIZENAK:

.....

.....

.....

.....

GOITIZENA: ADINA:

SAILA:

- BAKARLARIA AHOTS HUTSEZ
- BIKOTEA AHOTS HUTSEZ
- TALDEA AHOTS HUTSEZ
- BAKARLARIA SOINU LAGUNTZAREKIN
- BIKOTEA SOINU LAGUNTZAREKIN
- TALDEA SOINU LAGUNTZAREKIN

KANTU EZAGUNA ala SORMENEZKOA?.....

IKASTETXEA / MUSIKA ESKOLA.....

HELBIDEA:

HERRIA:

TELEFONOA:..... FAXA:

E-posta:

ARDURADUNA:

Helarazi datu hauek Euskal Kantuzaleen Elkartera posta arruntaren bidez, posta elektronikoz, faxez, edota bertara deituz (beharrezko datuak orri honetan bertan dituzue). Garrantzitsua da telefonoa eta arduradunaren izena garbi jartzea. **Arduradunak taldearekin egon beharko du jaialdiaren egunean.**

Edozein zalantza izanez gero ere bide hauek erabili.